



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

LANBIDEEN ESTEREOTIPAZIOA HAURTZAROAN: HAURREN PROIEKZIO PROFESIONALA EZBAIAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Uribe-Echebarria Bruno, Leire.

ZUZENDARIA: Comino González, Priscila.

2020-2021

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honek genero berdintasuna izango du protagonista. Izan ere, arlo akademikoan eta profesionalean emakume eta gizonen arteko ustezko berdintasuna kolokan jarriko da. Horretarako, 3-12 urte bitarteko haur eta adin tarte horretako umeen irakasle eta guraso direnekin ikerketa bat aurrera eraman da. Horren helburu nagusiak, haurren heziketa akademiko eta proiektzio profesionalean guraso zein irakasleek dituzten generoari buruzko estereotipoak aztertzeaz gainera, horiek umeei zein neurritan transmititzen dizkieten identifikatzea izan dira. Hain zuzen ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrek gizartearen arabera "femeninoak" edo "maskulinoak" diren lanbideen sailkatzearekin bat datozen edo ez egiaztatzea. Beraz, guraso eta irakasleei bideratutako galdetegieta lortutako emaitzak haurrek eurek marrazkien bidez islatu dituzten erantzunekin konparatu ostean, ondorengo demostratzen ahalegindu da: nahiz eta gizarteak emakume eta gizonen berdintasunaren alde aurrerapauso nabarmenak eman, oraindik ere gorago aipatutako arloetan generoen arteko hainbat desberdintasun diraute.

Gako-hitzak: generoa, haurrak, estereotipoak, arlo akademikoa, arlo profesionala.

RESUMEN

La igualdad de género será la protagonista de este Trabajo de Fin de Grado. Y es que, se pondrá en duda la supuesta igualdad entre mujeres y hombres en el ámbito académico y profesional. Para ello, se ha llevado a cabo un estudio con niños/as de entre 3 a 12 años y profesorado y padres y madres de niños/as de estas edades. Sus objetivos principales han sido, además de analizar los estereotipos de género de padres y madres y profesores/as en la formación académica y proyección profesional de los niños y niñas, identificar en qué medida los transmiten a los pequeños/as. En concreto, comprobar si las opiniones de los niños/as de Infantil y Primaria se corresponden o no con la clasificación de profesiones que son "femeninas" o "masculinas" según la sociedad. Por tanto, tras comparar los resultados obtenidos en los cuestionarios dirigidos a padres, madres y profesorado con las respuestas que los propios niños y niñas han plasmado a través de los dibujos, se ha intentado demostrar que, a pesar de que la sociedad ha avanzado notablemente a favor de la igualdad entre mujeres y hombres, todavía persisten algunas diferencias de género en las áreas mencionadas anteriormente.

Palabras clave: género, niños/as, estereotipos, área académica, área profesional.

ABSTRACT

Gender equality will be the main subject of this Bachelor's Degree Final Project. Indeed, the alleged equality between women and men in the academic and professional spheres will be questioned. For this purpose, a study has been carried out with children between 3 and 12 and teachers and parents of children of these ages. Its main objectives have been, besides analysing the gender stereotypes of parents and teachers in the academic education and professional projection of children, identifying to what extent these are transmitted to them. Specifically, checking whether or not the opinions of children in Pre-school and Primary School match the classification of professions that are considered "feminine" or "masculine" according to society. Therefore, after comparing the results obtained in the questionnaires addressed to parents and teachers with the responses that the children themselves have depicted in their drawings, an attempt has been made to demonstrate that, despite the fact that society has made substantial progress towards equality between women and men, some gender differences still persist in the previously mentioned areas.

Keywords: gender, children, stereotypes, academic area, professional area.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. JUSTIFIKAZIOA	2
3. MARKO TEORIKOA	3
3.1. OINARRIZKO KONTZEPTUAK	3
3.2. GENERO IDENTITATEAREN GARAPENA	5
3.2.1. ETAPAK.....	5
3.2.2. ERAGINA IZAN DEZAKETEN FAKTOREAK	6
a) Familia	7
b) Eskola.....	8
3.3. GENEROAREN TRATAERA ESKOLAN	8
3.3.1 LEHEN HEZKUNTZAKO OINARRIZKO DEKRETUAREN AZTERKETA GENEROARI DAGOKIONEZ	10
a) Ageriko curriculuma.....	10
b) Curriculum ezkutua.....	10
3.3.2. BESTELAKO PLAN BATZUK.....	12
3.4. ESTEREOTIPOAK ARLO AKADEMIKO ETA PROFESIONALEAN.....	13
3.4.1. HAURREN ESTEREOTIPOAK	14
3.4.2. HELDUEN ESTEREOTIPOAK.....	16
4. IKERKETAREN HELBURUAK	18
5. METODOA	19
5.1. HAURREKIN BURUTUTAKO LANAREN NONDIK NORAKOAK.....	19
5.1.3. Emaitzak	20
5.2. HELDUEKIN BURUTUTAKO LANAREN NONDIK NORAKOAK	26
5.2.1. Gurasoak	26
5.2.1.3. Emaitzak.....	26
5.2.2. Irakasleak	28
5.2.2.3. Emaitzak.....	29
6. KONKLUSIOAK	32
7. HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK	35
8. ERREFERENTZIAK	38
9. ERANSKINAK	41

1. SARRERA

Lehen Hezkuntzako gradu azken kurtsoarekin batera, Gradu Amaierako Lana egiteko garaia iritsi da. Izenak dioen bezala, lan hau graduan egingo den azkena izango da, honekin etapa luze bati amaiera eman eta aldi berean, beste berri bati hasiera emango zaio.

Lan honen gaia aukeratzeko, egun pil-pilean dagoen zerbaitetan pentsatu eta genero berdintasunaren inguruko lan bat eraikitzea erabaki nuen. Gai hau hain mamitsua izanik, urte hauetan zehar ikasitakoarekin uztartu eta nire testuingurura hurbiltzea erabaki nuen, izan ere, genero ikuspegia, heziketa akademiko eta profesionalean gero eta gehiago entzuten den kontzeptua da. Hori dela eta, joan-etorri ugari egin eta gero, nire GrAL-eko tutorearen laguntzari esker gai definitiboa izango zena aukeratu nuen: *“Lanbideen estereotipazioa haurtzaroan: haurren proiektzio profesionala ezbaian”*.

Hurrengo orrialdeetan gai horri buruz jasotako informazioa islatzen saiatuko naiz ondorengo ordenari jarraitzen dion egituraren bitartez:

Lehenik eta behin, lan hau aurrera eramatearen arrazoi zehatzak eta motibazio pertsonalak agerraraziko dira. Ondoren, lanaren gaian pixkanaka murgiltzeko, oinarri teoriko luze bat topatuko da, hots, marko teorikoa. Bertan, lana osotasunean ulertu ahal izateko oinarriko kontzeptu batzuekin hasiko da, gerora, genero-identitatearen garapenean arreta jartzeko. Izan ere, kontzeptu horrek berebiziko garrantzia eskuratuko du lan osoan zehar. Horren garapenaren faseak behin ulertuta, prozesu horretan eragina izan dezaketen bi faktore nagusi aztertuko ditugu, familia eta eskola hain zuzen ere. Jarraituz, eskolan, generoak jasotzen duen trataera jomugan ipiniko dugunez, ageriko curriculumaz gainera, curriculum ezkutua ere aztertuko da. Horren ildotik, berdintasunaren alde egiten duten beste zenbait planen inguruan ere arituko gara. Marko teorikoaren azken atal gisa, hurrek zein helduek arlo akademiko eta profesionalaren inguruan izan ditzaketen estereotipoak identifikatzen saiatuko gara.

Marko teorikoaren ostean, ikerketa-lan honen helburuak zerrendatu eta horren nondik norakoak azalduko dira, izan ere, proiektu honek bi zati nagusi izango ditu, alde batetik hurrekin jorratutakoa eta bestetik, helduekin egindako analisia. Behin emaitzak adierazita, horiengandik ateratako ondorioak azaldu eta ikerketa-lan hau hobetzeko asmoz, lanaren ahuleziak identifikatu eta hainbat planteamendu berri plazaratuko dira.

Azkenik, lana osatzeko erabilitako erreferentzien zerrenda eta edukiak osatzeko xedearekin sortutako eranskinak azken orrialdeetan ikusgai egongo dira. Besterik gabe, Gradu Amaierako Lan honi hasiera emango diot.

2. JUSTIFIKAZIOA

Gizakiaren sexualizazioa jaiotzatik heriotzaraino doan prozesua jarraia, dinamikoa eta aberastasunez beterikoa da. Gauzak horrela, haurdunaldiko fasetik geure bizitzak baldintzatuta egoten dira: kromosomak, gonadak, hormonak, barne eta kanpoko genitalen garapena, nerbio-sistema zentrala... Hemendik aurrera gorputzei sexu bat esleitu eta haur horren igurikapenak martxan jartzen dira, hau da, haur hori mutila edo neska izango da eta sozializazio desberdinduaren hastapenen bidez haurraren jokabideak era batekoak ala bestekoak izango dira (Naizen, 2021).

Ume baten bizitzan parte-hartzen duten sozializazio esparruak anitzak izan arren, arreta berezia jarriko dugu lehenengo bietan, hau da, familian eta eskolan. Izan ere, bi hauengandik jasotako estimulu denak genero rolei dagokionez haurren jarrera erabat baldintzatuko dute. Horrenbestez, euren nortasuna eta zehazki, genero identitatea eraikiko da (Marchesi, Coll eta Palacios, 2014).

Horiek horrela, urtez urte mantendu diren genero-rol zein estereotipoek gaur egun gure bizitzetan okupatzen duten espazioa ikertzeko beharra ikusi da, bereziki, arlo akademiko eta profesionalen.

“Lanbide maskulinoak”, “lanbide femeninoak”, “indarra”, “zaintza”, “mutilak hobeak dira”, “neskak txeratsuagoak dira”... askotan entzun ditugun estereotipoz blaitutako ideia zein baieztapenak dira. Nahiz eta egungo gizarteak genero berdintasunaren aldeko aurrerapen itzelak eman, tamalez, oraindik, txiki txikiak direnetik ere, gure haurrei horrelako mezu inplizitu zein esplizituak transmititzen dizkiegu.

Hori dela eta, lan honen bidez guraso zein irakasleok gain, haurrek arlo akademiko eta profesionalaren inguruko itxaropen zein estereotipoak zein nolako neurritan barneratuta dituzten analizatzea bilatuko da. Izan ere, Rosalesek (2017) dioen moduan, helduon espektatibek haurren etorkizuneko proiektzio profesionala nolabait baldintzatu dezakete. Orobat, genero bakoitzarengan gauza ezberdinak espero baditugu, bi hauen arteko arrakala zurrun bat eraiki daiteke.

Hitz gutxitan, aipatu berri diren arloetan zein-nolako genero estereotipoak existitu eta zenbateraino barneratuta ditugun demostratzea helburu, Haur eta Lehen Hezkuntzako haur, irakasle eta gurasoekin ikerketa lan hau jorratzeko motibazioa piztu da.

3. MARKO TEORIKOA

Gizakiak espezie dimorfiko bat gara, izan ere, geure ugalketa sexuata da. Alabaina, izaera sexuala duen ezberdintasun biologiko txiki batengatik, emakume eta gizonen arteko ezberdintasun sozial nabarmenak ezarri dira, zoritxarrez, efektu baztertzaila larriak dituztenak emakumeontzat.

Ildo beretik, emakumea edo gizona izatea ez dago anatomia organiko baten menpe, izan ere, anatomia ez da gure kulturaren erdigunea. Gaur egungo errealitatean hain nabarmena den desberdintasuna sexuaz haratago doa, zehazki, generoan du oinarria. Hori dela eta, genero zehatz baten parte izateak, modu zehatz batean jokatzeko eragiten du eta ondorioz, bi horien arteko desberdintasunak alderdi biologikoetatik haratago egiteak suposatzen du (Abellón, 2018).

3.1. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Lan honetan zehar jorratuko diren gaiak eduki, hitz nahiz kontzeptu konplexuak hartzen dituzte bere baitan, horregatik, hasi aurretik eta txostena bere osotasunean ulertu ahal izateko, lehenik eta behin, honako hitz hauek definituko ditugu:

a) **Sexu biologikoa:**

Karaktere morfofuntzionalak dira eta ondorengo hauek osatzen dituzte: sexu kromosomikoa, gonadak, kanpo- eta barne-genitalak eta konponente neuroenzefaliko eta neuroendokrinoak (Bardi, Leyton, Martínez eta González, 2005). Hauek emakume eta gizonen arteko bereizketa ezartzeko oinarri dira (Eusko Jaurlaritzak, 2020).

b) **Sexu-identitatea:**

Sexuari dagokionez, nor bere buruaz duen pertzepzioa, nahitaez bat etorri behar ez duena jaiotzean ezaugarri fisiko eta biologikoetan oinarrituta esleitutako sexuarekin (Eusko Jaurlaritzak, 2020).

c) **Genero-identitatea:**

Generoa, gorputz sexuatu bati inposatzen zaion eraikuntza soziala da. Simone de Beauvoirrek "Le deuxième sexe" (Bigarren sexua) liburuan *–Ez gara emakume eta gizon jaiotzen, gizarteak emakume eta gizon bihurtzen gaitu, hau da, kultura bakoitzak emakume eta gizonentzat espero duenarekin identitate bat osatzen digu–* adierazi zuen (De Beauvoir, 2015).

De Beauvoirren hitzetatik abiatuz, hainbat autorek horrela definitzen dute genero identitatea:

Talde bateko kide izate hutsagatik, kide bakoitzari transmititzen zaion balioen, sinesmenen, jarreraren eta portaeren sistema da eta sentitzeko, ulertzeko eta jarduteko modu zehatz bat eragiten du (Bonilla eta Carvajal, 2020).

Egile horiek aipatzen digute genero identitatea honako hauen bidez transmititzen dela: itxaropenak, hazkuntza, emakume edo gizona jaiotzeagatik atxikitzen diren rolak eta pertsona bakoitzarengan portaera berriak sortzen dituen informazioa interpretatzeko modua.

Jarraituz, Eusko Jaurlaritzak (2020) horrela definitzen du ere: *generoari dagokionez, nor bere buruaz duen pertzepzioa, sexu/genero sistema bitarraren arabera gizonezkoei eta emakumezkoei ezartzen zaizkien rolek lotutakoa, edozein dela ere jaiotzean ezaugarri biologikoen arabera esleitutako sexua.*

Hainbat definizio aztertu ostean, sexua eta generoa kontzeptuak erlazionatuta egon arren, ideia ezberdinak direla argi dago.. Hori dela eta, hitz gutxitan adieraziz, horrela definituko genituzke bi kontzeptu nagusi horiek:

Sexuak, ezaugarri biologiko eta giza sexuazioarekin loturiko nolakotasunei erreferentzia egiten dio eta generoak, aldiz, ezberdintasun biologikoak ez diren gainontzeko ezaugarriak bere baitan biltzen ditu, esaterako, jarrerak, portaerak, norbanako psikologia... (García, 2000).

Genero identitatearen hainbat definizio aztertu ostean, aurrerago, zehazki, 3.2.1. puntuan azalduko da haurtzaroan prozesu konplexu hau nola garatzen den.

d) Sexu-joera:

Erakarpn sexualaren norabidea gisa ulertzen dugu, hau da, sexu zehatz bateko pertsonenganako ametsak, fantasiak edota desio iraunkorrak. Perspektiba hau dela eta, ondorengo aukerak ezberdintzen dira: heterosexuala, aurkako sexuko pertsonengandik erakarpna; homosexuala, sexu berdineko pertsonenganako erakarpna edo bisexuala, bi sexuko pertsonenganako erakarpna sentitzean. Momentu honetan, laugarren bat ere bereiz daiteke, zehazki, asexuala. Izan ere, pertsona asexualak edozein sexuko pertsonengandik erakarpna ezeztatzen dute (Campo, Vanegas eta Herazo, 2017).

e) Estereotipoak:

Gizabanako batek talde sozial baten parte izate hutsagatik, mantentzen dituen sinesmenen multzoak dira. Estereotipoak, kulturalki onartuak eta baimenduak izaten

dira, hortaz, gizarte, kultura eta garai guztietan ez dira berdinak. Alabaina, estereotipo guztiek orokorrean, gauzak sinplifikatzeko joera dute eta mundua kategorietan sailkatzen ahalegintzen dira. Horrela, pertsona, gizatalde eta errealitateei buruzko irudikapen sinplifikatuak eratzen dira.

Era berean, pertsonen jokaera ideala zein izan beharko litzatekeen iradokitzen digute, izan ere, euren gizatalde, arraza, sexu edota erlijioaren arabera ezberdina da. Hitz gutxitan, estereotipoek errealitatea sinplifikatu eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren alde aurretik pentsatutako ideietan oinarrituta daude (González eta Callejas, 2019).

Horren ildotik, gure lanean berebiziko garrantzia izango duen azkeneko kontzeptua erator dezakegu, zehazki, **genero-estereotipoa**. Izan ere, emakumeen eta gizonen ustezko ezaugarri eta atributuen multzoa da, haien portaera bereziak azaltzeko erabiltzen dena; besteak beste, gizarteak genero bakoitzari esleitutako rolen arabera batzuek eta besteak izan beharreko jokamoldea, bizitzaren esparru guztietan bete beharreko zeregina eta emakumeek eta gizonen elkarrekin izan beharreko harremanak (Eusko Jaurlaritzak, 2020).

3.2. GENERO IDENTITATEAREN GARAPENA

3.2.1. ETAPAK

Gorago aipatu bezala, genero identitatearen garapena bizitza osoan zehar irauten duen prozesu bat da eta ondorengo lau etapa nagusietan banatu daiteke (Sánchez, 1996):

1. **Generoaren esleipena.** Jaioberri bati sexu bat esleitzen zaionean hasten da, izan ere, sexu bakoitzari genero maskulinoa edo femeninoa atxikitzen zaio. Nahiz eta genero hori norberaren identitate biologikoaren parte ez izan, esleipena berezkoa da. Dakigunez, jaioberri ar eta emeei dagozkien generoak esleitzen zaizkie eta horiei estuki lotuta dauden estereotipo zein rolak.

2. **Generoaren bereizketa.** Sexu eta genero esleipenaren eraginez, haurren inguruneak eta gizarteak jaioberriari euren generoarekin bat datozen jakintza, jarrera, ikaskuntza eta portaeren multzo bat transmitituko dio. Horren ondorioz, haurra etiketatua izango da eta esperientzia eta sinbolismo ezberdinen bitartez euren genero identitatea osatuko du. Adierazi bezala, gizarteak euren kideei bideratutako itxaropen eta rol batzuk ezartzen ditu eta nolabaiteko zuzentasunarekin, presioa ezartzen du itxaropen eta rol horiek bete daitezen. Tamalez, espektatiba horiek ez dira berdinak bi generoentzat.

3. **Generoaren identifikazioa.** Haurrek 5-6 urte inguru dituztenean, generoaren iraunkortasuna lortzen dute, hots, sexua aldaezina eta kanpo aspektuen menpe ez dagoen errealitatea dela ulertzen dute. Era berean, etapa horretan, haurrek euren buruaren ezagutza eskuratzen dute, maskulino edo femenino moduan definituz (Jayme, 1999).

Garapenaren une horretan, genero estereotipoak ulertzen hasten dira, izan ere, haur bakoitzak, neska edo mutila izatearen arabera, ekintza batzuk egin eta beste batzuk baztertzen ditu. Orobat, baztertutako jarduera horiek konnotazio negatiboarekin isolatzen dira, hau da, ezberdina dena baztertzen da.

4. **Generoaren malgutasuna.** Azken etapa hau 7-11 urte bitartean ematen da. Bertan, haurrek ikasten dute maskulino eta femeninoari dagozkien arau, estereotipo eta genero rola ez direla aldaezinak eta beraz, alda daitezkeela. Garcíak (2000) dioen moduan, etapa horretan, mutilek presio handiagoa dute maskulinoa den genero identitatea barnerratzeko, izan ere, gizartean, aspektu femeninoak gutxietsiak dira aspektu maskulinoekin alderatuz gero. Bestalde, neskek ez dute horrenbesteko presioa eta alderdi maskulinora nolabaiteko hurbilpena egitea baimentzen zaie, izan ere, euren feminitatea ez da kolokan jarriko.

3.2.2. ERAGINA IZAN DEZAKETEN FAKTOREAK

Hainbat dira genero identitatearen eraikuntzaren prozesu horretan eragina duten agenteak. Bronfenbrennerren arabera (1979) haurraren garapenean umearengandik gertuen daudenetik hasi eta urrunago daudenekin amaituz, ondorengo giza-talde ezberdin hauek eragina dute:

1. **Mikrosistema:** umearengandik gertuen dagoen sistema da eta gurasoek, familiak eta eskolak osatzen dute. Hauek umearengan duten eragina oso nabarmena da, izan ere, gurasoen sinesmenek era zuzenean eragingo dute haurraren garapenean eta bihurtuko den pertsonarengan.

2. **Mesosistema:** lehenengo mailako sistemako (mikrosistema) kideen arteko harremanek osatzen dute. Esaterako, guraso eta eskolako irakasleen arteko harremana, familia eta haurraren lagunen arteko harremana...

3. **Exosistema:** umearekin harreman zuzenik ez baina, era berean, bere bizitzan eragina duten elementuek osatzen dute. Hots, mikrosistema osatzen duten kideengandik zeharka ematen dena. Esaterako, gurasoen lan-eremuak eta bertako lan-

harremanek hauen pentsamoldean, aisialdian edota hauen emozioetan eragina izan dezakete eta ondorioz, horiek umeari eragin.

4. **Makrosistema:** maila hau elementu kulturelek osatzen dute, tradizioak, erlijioak edota baloreen sistemak, besteak beste.

5. **Kronosistema:** egun, umea bizi den denborazko uneari erreferentzia egiten dio eta era berean, haurren munduaren egonkortasun gradua. Izan ere, oso ezberdinak dira gaur egungo hezkuntza eta Gerra Zibilaren garaikoa.

Bronfenbrennerren teoriak, haurraren testuingurua eta hura osatzen duten sistema guztiek horren garapen eta ikaskuntzan era nabarmenean eragina dutela ulertzen laguntzen digu (Perona, 2020).

Argi dago, bada, haurraren genero identitatearen eraikuntzaren prozesuan, haurraz gain, beste hainbat eragilek hartzen dutela parte. Horrexegatik, dagoeneko aipatutako **sozializazioa**¹ kontzeptuak berebiziko garrantzia hartzen du. Izan ere, sozializazioaren bitartez, haurrak bere jokoaren barnean ekintza onargarriak eta onartezinak bereizten ikasten du. Gorago aipatutako teoriak azaldu bezala, badira umearen sozializazio prozesuan parte-hartzen duten hainbat eragile, ondorengo lerroetan horietako bi nagusi azalduko dira, zehazki, Bronfenbrennerrek “mikrosistema” gisa izendatutakoak, familia eta eskola (Calderón, 2007):

a) Familia

Haurrarentzat bere lehendabiziko sozializazio esparrua familia da, beraz, honengandik jasotako estimulu denak ezinbestekoak izango dira bere identitatearen finkapenean (Marchesi, Coll eta Palacios, 2014). Izan ere, bizitzako lehenengo momentuetatik, familiak eragin multiplea izaten du eta horrek, haurraren rol zehatz bat zehazten du: maskulinoa edo femeninoa (Rosales, 2017).

Bizitzako edozein alderditan emandako lehendabiziko ikaskuntzak, haurrarekin izandako esku-hartze zuzen eta bereizgarrien (neska edo mutila izatearen arabera) bitartez markatuta agertzen dira. Izan ere, gurasoek bere seme-alabengandik espero dutena, hauen arteko harremana, jasotako heziketa, familian sustatutako tolerantzia edota hauei eskainitako baliabide eta materialek, hots, jostailuak edota arropak markatuko dute haurraren jarrera genero rolei dagokionez eta zehazki, bere nortasuna (Marchesi, Coll eta Palacios, 2014).

¹ Norbanakoak gizartera moldatzeko beharrezkoak diren elementu soziokulturalak bere nortasunean integratzen dituen prozesua (Luzuriaga eta Aranburu, 2020).

Dakigunez, egun, familia mota ugari daude eta familia motaren arabera izango da umearen genero identitatearen finkapen kualitatiboa. Esaterako, familia molde tradizionala, aita, ama, anai-arrebak, aitona-amonak; familia monoparentalak; familia homoparentalak... guzti horiek ezberdin eragingo dute neska-mutilen garapenaren prozesuan (Rosales, 2017).

Aurrekoaren harira, kultura familiarraren eragina ondorengo hauen bitartez nagusiki islatuko da: komunikazioa, bizitza estiloa, etxean izandako kontrola, komunikazio baliabideen erabilera, maila sozioekonomikoa... Hortaz, hauen guztien bidez mezu, orientazio eta ildoak transmitituko dira, zeinak, genero identitatea osatzen lagunduko duten (Rosales, 2017).

b) Eskola

Jarrantuz, bizitzako hasierako momentuetan familiak paper gorena betetzen duen arren, haurra hazten doan heinean, badira bere formakuntzan eta horren ondorioz, bere identitate eta genero rolean nagusitzen hasten diren beste eszenatoki batzuk, esaterako, eskola. Hortaz, eskolaratzean, hezitzaile zein irakasleek berebiziko garrantzia eskuratzen dute prozesu horretan. Beraz, Marchesi, Coll eta Palacios (2014) dioten moduan, hainbat ikerketen arabera, etxean barneratutako genero rol horiek eskola urteetan mantendu eta indartuak ere izan daitezke.

Ez hori bakarrik, eskolan, profesionalen gain, badira beste agente asko umeen genero identitatearen garapenean eragin zuzena dutenak, gainontzeko haurrak, hain zuzen ere. Dakigunez, hurrek euren jolasetarako kideak aukeratu, harremanak eraiki eta elkarrengandik ikasten dute, hori dela eta, genero rolen transmisioa nolahi ere beti presente egongo da (Marchesi, Coll eta Palacios, 2014).

Alabaina, familia eta eskola beti egongo dira elkarri lotuta haurraren eskolaratze urte guztietan zehar. Esate baterako, ikastetxearen aukeraketa, gurasoen euren seme-alaben formakuntzari buruz egiten duten jarraipena, guraso-irakasle harremana, etxerako lanekin emandako laguntza, eskolaz kanpoko ekintzei buruz erakutsitako interesa, parte-hartze aktiboa... horiek guztiek seme-alaben genero rola eraketan nabarmenki eragingo dute (Rosales, 2017).

3.3. GENEROAREN TRATAERA ESKOLAN

Aipatu berri diren estereotipo eta balore sexistak, haurtzaroan genero zehatz bat eskuratzen dugunetik sozializazio agente ezberdinen bitartez transmititzen zaizkigu.

Horien artean, eskola dugu sozializazio esparru nagusietako bat eta ondorengo lerroetan horren inguruan arituko gara (Sanchez eta Urbón, 2020).

Sanchez eta Urbónek (2020) dioten moduan, eskola, sexismoa behin eta berriz errepikatzeko esparru paregabea ohi da. Izan ere, bertan erabiltzen diren baliabide material zein irakasle eta ikasleen arteko interakzioan, genero- estereotipo eta - ezberdintasun nagusiak agerian gelditzen dira. Esate baterako, eredu maskulino eta femeninoen irudikapenean, lengoaian, harreman pertsonaletan eta jolasean, besteak beste.

Horren aurka, genero-ikuspegia² kontzeptuak berebiziko garrantzia eskuratu du azken urte hauetan. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak (2016) azpimarratzen duen moduan, ikastetxeetan, ikasleen garapen integrala bermatze aldera, ezinbestekoa da genero-ikuspegia etengabe presente egotea, izan ere, hezkuntza esparruan, emakume eta gizonen arteko desberdintasun nabarmenak setatzen baitira.

Beraz, ezinbestekoa izango da ikastetxeetan irakasleek genero-ikuspegia zer den ondo barneratzeaz gainera, horren barnean aritzeko estrategiak lantzen ikastea. Prozesu horren abiapuntua “curriculum ezkutua” zer den eta norbanakoen hezitzaile-jardunean zer eragin duen ulertzean datza, izan ere, gurasoekin gertatzen den moduan, irakasleek jaso izan duten heziketa-ereduak eragin handia izan dezake euren irakasteko moduan. Beraz, genero-ikuspegia oinarri metodologikotzat hartuta, Hezkuntza Sistemari hainbat arlo eraldatu eta moldatzeko aukera egongo da, nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatze aldera (Luzuriaga eta Aranburu, 2020).

Hori dela eta, Euskal Herriko Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Dekretua aztertuko da hurrengo lerroetan, zehazki, generoaren trataerari erreferentzia egiten dioten artikuluetan aipamenak identifikatze aldera. Halaber, curriculum formala ikertzeaz gain, arreta berezia jarriko da curriculum ezkutuan, hots, formalak esplizitatzen edo zehatz ezartzen ez dituen alderdi inplizituen multzoa (Luzuriaga eta Aranburu, 2020). Bestalde, Hezkuntza Sistemari hezkidetzaren sustatzearen aldeko beste hiru plan azalduko dira: Heziberri 2020, EAE-ko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023 eta SKOLAE.

² Ikusteko edo aztertuko modu bat da zeinak, generoak, pertsonen aukera, rol eta elkarreragin sozialetan duen eragina behatzean datza. Ikuspegi horri esker, genero-azterketa egin dezakegu eta ondoren, genero-ikuspegia zeharkakoa bihurtuz, proposatutako programa, politika edo erakunde batean bilakatu (OnuMujeres, 2016).

3.3.1 LEHEN HEZKUNTZAKO OINARRIZKO DEKRETUAREN AZTERKETA GENEROARI DAGOKIONEZ

a) Ageriko curriculum

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako curriculumean (236/2015 Dekretua) hainbat aipamen egiten dira lantzen ari garen gaiari buruz, generoaren ingurukoak, hain zuzen ere. Hortaz, curriculumean ageritako aipamen horietatik abiatuta, ondorengo hauek izango lirateke bertan islatzen diren ideia nagusienak:

- Genero ezberdinak daude eta guztiak berdin errespetatu behar dira, orobat, desberdintasuna sustatzen duten ereduak erabat zalantzan jarriz eta genero-indarkeriaren prebentzioa etengabe bermatuz.
- Hezkuntza Sistema inklusiboa ziurtatzeko, aniztasunaren adierazpen guztiak aintzat hartzea ezinbestekoa da, halaber, hezkuntza-eskubide berdinak bermatu behar dira beti.
- Generoak ez du sekula hezkuntzaren kalitatearen baldintzatzailerik izan behar, hortaz, betiko estereotipoetatik urruntzen gaituen pentsamoldea sustatzea ezinbestekoa izango da.

Aurrekoaz hobeto jabetze aldera eta gure gaiarekin lotura zehatzagoa egiteko, Lehen Hezkuntzako curriculumetik (236/2015 Dekretua) bertatik ateratako aipamena azalduko da hurrengo lerroetan:

*“Oinarrizko Hezkuntzak pertsonaren garapen integralari laguntzen dio, alde batera utziz sexuaren araberako estereotipoak eta rolak, bai eta bereizkeria mota oro ere, **generoaren** eraginik gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatuz. Horretarako, ikastetxeek emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko dute alor guztietan: curriculum, antolaketa eta abar”.*

Hori dela eta, egungo Hezkuntza Sistemak erabateko berdintasunean hezi beharko lituzke gure haurrak, generoak inolako eragin baldintzatzailerik izan gabe. Hots, haur guztiek aukera akademiko eta irteera profesional berdinekin eduki beharko lituzkete euren generoa inolaz ere kontuan hartu barik. Dena den, generoaren trataeraren inguruan ageriko curriculumean islatzen ez dena transmititzen saiatuko gara hurrengo puntuan, curriculum ezkutuan, hain zuzen ere.

b) Curriculum ezkutua

Curriculumaz hitz egiten dugunean, hezkuntza legediaren arabera ikasleei transmititu behar zaien edukiei buruz ari gara, izan ere, hauek kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak izan daitezke, eta horrekin batera helburuak, printzipio

metodologikoak eta ebaluazio irizpideak ere badaude. Curriculumak gizartean garrantzitsutzat eta nabarmentzat hartzen dituen ezagutzak jasotzen ditu. Horregatik, desberdintasun sexistak eratzten dituen gizartean aurkitzen diren itxuraldatzeak edo desitxuratzeak erreproduzitzen dira (Lopez, 2007).

Eskola, edozein bereizketa gainditzeko baliagarriak diren ezagutza sozialak transmititzeaz arduratu beharko litzateke. Ageriko curriculumak ez ezik curriculum ezkutua da diskriminazio sexista era estalian edota modu ez argian mantentzen duena (López, 2007). Alde batetik, pertsonen arteko harremanetan eta espazio fisikoetan ikus daiteke: erantzukizun handiko kargu banaketan, generoaren irizpideetan oinarritutako espazioaren banaketan, harreman interpersonean, hizkeran... Beste alde batetik, curriculumarekin harreman estuagoa duten elementuak daude, hala nola, baliabide eta material didaktikoak, curriculumeko eremu zehatz batzuetara ikasleek iristeko dituzten zailtasunak...

Arestian aipatu bezala, sozializazio prozesuan eta genero ereduen eskuratzeko prozesuan garrantzi handikoa da lehenengo urteetan jasotzen den informazio guztia. Hezkuntza Sistemak generoak transmititzeaz gainera, sexismoa ere transmititzen du (Carreras, Subirats eta Tomé, 2012). Hori, mekanismo multzo baten bitartez helarazten da: neska eta mutilekiko trataera ezberdina edukiz, curriculum ezkutuaren bidez jarrera ez kontzienteak gidatuz...

Ageriko curriculumari dagokionez, sexu diskriminazioak modu argi eta zuzenean ematen ez diren arren, historian zehar emandako borrokei esker curriculumean bertan desberdintasun hauek eman direla jakin da. Eskolan ikasleek jasotzen dituzten edukietan protagonismoa gizonari egokitu zaie, emakumeak garapen zientifiko zein sozialean menpeko posizio batean agertu diren bitartean.

Hala ere, sexu diskriminazioa ageriko curriculumetik haratago doa. Modu paraleloan doan ezkutuko curriculumean ere ageri da, alegia, era ez zuzenean transmititzen diren balore eta arauak zalantzan jarri gabe jasotzen dira. Modu honetan generoari egotzitako estereotipoen transmisioa iraunarazten da: ohizko emakumeak eta ohizko gizonak sortuz eta hauetako bakoitzari paper, jarrera eta ezaugarri desberdinak esleituz. Estereotipoek eredu zurrinak sortzen dituzte, beraz, pertsona oro eredu hauetara moldatu behar da bizi den gizartean onarpena edukitzeko.

Ikuspegi honetatik abiatuz, bi sexuen arteko erlazio sistema ezberdina ezartzen da. Horregatik, curriculum ezkutua ez da soilik hezkuntza eremura soilik mugatzen baizik eta pertsonen arteko elkarrekintzetan txertatuta dauden arau sozial guztiak kontuan hartzen ditu. Modu berean, desberdintasun horrek hezkuntzako eragile guztiei eragiten

dio: irakasleei, ikasleei eta eskolari. Gauzak horrela, ezberdintasun horiek ikasle zein irakasleen arteko itxaropenetan ematen dira, erlazio pertsonalak ezartzeko moduan, hizkuntzaren erabileran, jarreretan, eskolako espazioaren erabileran edota kargu eta ardura banaketan (López, 2007).

3.3.2. BESTELAKO PLAN BATZUK

Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Dekretuaz gainera, badira beste plan batzuk hezkidetza kontuan hartzen dutenak.

a) HEZIBERRI 2020

Heziberri 2020 Hezkuntza Sailak gure hezkuntza-sistema hobetzeko plana da. Horretarako, Europako Kontseiluak hezkuntza eta prestakuntzari buruz 2020rako finkatu zituen ildo estrategikoak; XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOri Jacques Delorsek egindako txostena (“Hezkuntza: altxor ezkutua”); eta euskal hezkuntza-sistemak orain arte lortutako emaitzak kontutan hartu dira.

Dakigunez, Heziberri 2020k planteatzen duen proposamen kurrikularra malgua eta irekia da, horri esker, ikastetxeen autonomia pedagogikoa bultzatzen da, izan ere, ikastetxe bakoitzaren premiak ezberdinak dira (Eusko Jaurlaritzak, 2015).

Gure gaiaren harira, plan honek ondorengo aportazioa egiten du: norberak bere buruari buruz duen irudia osatze aldera, sexu- eta genero- identitate eta sexu-joera identifikatu eta bere buruaz eroso sentitzea bilatzea. Izan ere, plan honetan emozioak bereziki garrantzitsuak dira, hortaz, norbera bere gorputza eta bere nortasunarekin gustura egotea ezinbestekoa izango da, gerora, besteekin eta munduarekin harreman osasuntsuak eraiki ahal izateko (Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Saila, 2015).

b) EAE-ko HEZKUNTZA-SISTEMARAKO II.HEZKIDETZA-PLANA, BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN 2019-2023

Plan honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskal hezkuntza-sistemari eta, zehazki, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapei aurretik aipatutako hezkidetza-eskolan urratsak ematen jarraitzeko aukera eskaintzen die. Bertan, berdintasunaren bidean aurrera egiteko beharrezko urratsen kontzeptu-gakoak aurkituko dituzte, halaber, hori errealitate egiteko behar diren material eta tresnak eskainiko dira (Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Saila, 2019).

Ondorengo hauek dira planaren hiru helburu nagusiak:

- Hezkuntza Saila eta hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzeta-eskola eredia sustatuko duten egituraz eta pertsonaz.
- Bultzada ematea ikastetxeek genero-ikuspegia beren kulturean, politiketan eta jardunbideetan txertatzeari.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa, detekzio goiztiarra eta erantzun eraginkorra lortzeko mekanismoak martxan jartzea.

c) SKOLAE

Nafarroan sortutako berdintasunerako plana da. Bertan, hezkuntzako etapa guztietan zehar, berdintasunera bideratuta ez dauden jarrera eta jokakerak analizatzea, zuzentzea eta konpentsatzea proposatzen da. Era berean, berdintasuna lortzen lagunduko gaituzten jarrera eta jokamoldeak irakatsi eta hauek identifikatzea ahalbidetuko du.

SKOLAE programak ondorengo helburu nagusia du: ikasle bakoitzak bere bizi-proiektua askatasun osoz, aukeren aniztasuna kontuan hartuz eta genero baldintzarik gabe aukeratzen lagunduko dioten kompetentziak garatzea Hezkuntza-Sistemako etapa guztietan zehar. Orobat, desberdintasunak identifikatzen ikastea, hauen aurka borroka egitea eta berdintasunerako eskubidea gauzatzea edozein alderdietan, esaterako, kulturean, erlijioan, gizarte-mailan, sexu-identitate naiz joeran... (Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentua, 2019).

Programa honetan lau ikaskuntza multzo nagusi bereizten dira, zeinak, programari osotasuna emango dioten:

- Desberdintasunaren aurrean kritika eta ardura.
- Autonomia eta independentzia pertsonala.
- Lidergoa, ahalduntzea eta esku-hartze soziala.
- Sexualitatea eta tratua ona.

3.4. ESTEREOTIPOAK ARLO AKADEMIKO ETA PROFESIONALEAN

Dakigunez, rol eta estereotipoen transmisioaren bitartez barneratzen diren generoen arteko ezberdintasunek haurrengan pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko modu desberdinak sortzea eragiten du. Horrenbestez, euren garapen integrala eta aukera pertsonal zein profesionalak nabarmenki murrizten dira (Hidalgo, 2017). Ondorioz, generoaren arabera bi itzaropen akademiko mota ezberdin daudela esan dezakegu?

3.4.1. HAURREN ESTEREOTIPOAK

Arestian aipatutakoaren haritik, Spidell eta Ellisek (2003) "The baby human" telesaioan azaldutakoaren arabera, jaioberriek 9 hilabeterekin jada, bi genero ezberdin existitzen direla ikasten dute. Izan ere, inguruzten zaizkien pertsonengandik izaki soziala izatea zer den ikasten dute, beraz, jasotako arretak, erabilitako hizkerak eta beste hainbat faktorek indartuko dute bi genero horien bereizketa.

Tamalez, generoen bereizketa horrek eskutik estuki helduta du bi generoen arteko balorearen ezberdintasuna, zoritxarrez, jarrera horietan genero estereotipoak bereziki islatzen baitira, hortaz, txiki-txikitatik, nahiz eta egun, transmititzen zaizkien mezuak sotilagoak eta iraganekoak bezain esplizituak ez izan, haurrek estereotipo sexistak barneratzen jarraitzen dute. Beraz, oraindik ere helduon munduan onartuak dauden genero rol eta estereotipo sexistekin etengabe kontaktuan daude umeak (Solbes, Valverde eta Herranz, 2020).

Hainbat ikerketek ondorioztatu duten moduan, Haur Hezkuntzan jada, haurrek estereotipo sexistak aplikatzen dituzte zeharkako espektatibak betetze aldera, hots, gainontzekoen ezaugarrien ingurukoak zein lanbide zehatzen langileen ingurukoak (Solbes, Valverde eta Herranz, 2020).

Aztertzen ari garen gai sakonduz, estereotipo sexista horiek arlo akademikoan berebiziko inpaktua izan dezakete, aurrerago aipatu den moduan, generoaren arabera nolabaiteko bi itxaropen akademiko mota ezberdin sortuz. Orobat, haurrak horretaz jabetzeko etengabeko arriskuan daudelarik, ondorengo ikerketek 4-9 urte bitarteko haurrengan errepikatzen diren markatutako estereotipo hauek identifikatu dituzte:

- Gizonezkoak emakumezkoak baino azkarragoak dira (Solbes, Valverde eta Herranz, 2020).
- Lanbide batzuk genero zehatz batera mugatuta daude, esaterako, polizia gizonezkoentzat eta lore-saltzailea emakumezkoentzat (Solbes, Valverde eta Herranz, 2020).
- Mutilak, neskak baino bihurriagoak dira (Hartley eta Sutton, 2013).
- Haurrek eskusibotasuna erakusten dute euren jolasean, hau da, euren sexu berdineko kideekin momentuak konpartitzen dituzte, hainbat jolasetarako kontrako sexua "aproposa ez" dela atxikituz (Alvarez, Costa, Rivera eta Torres, 2018).
- Haurren gehiengo pertsonaia, jolas eta jostailu tipifikatuekin identifikatzen da (Alvarez, Carrera eta Cid, 2017).

- Mutilek, neskek baino finkatuagoak dituzte genero estereotipoak. Hots, mutilek askatasun gutxiago erakusten dute gizartearentzat “neskena” den zer edo zer egiteko (Rey, 2016).

Horren ildotik, Cimpian eta Lesliak (2017) aurrera eramandako ikerketatik abiatuz, azpimarra dezakegu, 6 urtetik aurrera, neskak, mutilak bezain azkarrak ez direla sentitzen hasten direla. Izan ere, adin horrekin, genero maskulinoari adimen intelektual handiagoa esleitzen dion estereotipoa erabat barneratuta dute. Tamalez, “dream gap”³edo “ametsen arrakala” deritzon horrek inpaktu suntsitzaille handia izango du nesken etorkizuneko helburu profesionaletan. Halaber, adin horrekin euren gaitasunen inguruan zalantzak izaten hasi eta egunen batean euren buruak hainbat kargutan ikusteko konfiantza galtzen dute.

Zergatik gertatzen da hau? Gizarteak era ikusezinean, euren balore sexisten bidez desberdintasunean hezten gaituelako. Hona hemen azken hau konfirmatzen duten hainbat adibidek (Cimpian eta Leslie, 2017):

- Literaturan, emakumearen irudia pasibotasunarekin lotuta dago eta gizonarena ausardia eta protagonismoarekin.
- Jostailuek genero rola iraunarazten dituzte.
- Eskolako testuliburuetan agertzen diren irudien %7,5 soilik emakumeak dira.
- Iragarki zein sare sozialetan transmititzen zaizkien mezuak, edertasunarekin eta bikaintasunarekin lotuta daude.
- Teknologiarekin lotutako lanbideetan portzentaje txiki bat soilik emakumeek betetzen dute.
- Etxeko ardurak eta haurren zaintza oraindik ere emakumearekin lotzen ditugu.

Hau guztia dela medio, Brownek (2014) ondorioztatu du guraso zein irakasleek emaitza akademiko onak nesken esfortzuari atxikitzen dioten bitartean, berezko gaitasuna mutilei esleitzen diotela. Horrenbestez, gizarteak eraikitako ideia horren ondorioz, neskek hasierako urteetan ideia hori barneratu eta euren bizitza osoa esfortzuan sinisten baina, ez, ordea, gaitasun naturalean eman dezakete. Beraz, sinesmen horiek arlo akademikoa generoaren arabera erabat baldintzatzen dutela ondoriozta genezake.

³ Nesken eta euren potentzialtasun akademikoaren artean existitzen den genero arrakala (Cimpian eta Leslie, 2017).

3.4.2. HELDUEN ESTEREOTIPOAK

Azken ideari eutsiz, **irakasleek** euren ikasleen bizitza akademikoan eragiteko botere handia dutela esan dezakegu. Alabaina, botere horren arriskuaz jabetzea ez da batere erraza, izan ere, irakasleek balore eta estereotipoak transmititzen dituzte nolanahi ere. Hortaz, sozializazio agente hauen eragina sakon sartzen da ikasleen itxaropen akademiko eta profesionaletan euren bizitza osoan zehar (Sáinz, 2014).

Zoritxarrez, gorago aipatu den moduan, itxaropen horiek ez dira bi generoentzat berdinak, izan ere, era sotilean, neskei femeninotzat hartutako ikasketak burutzeraz estimulatzen ditugun bitartean, mutilak rol maskulinoarekin lotutako ikasketak aurrera eramatera bideratzen ditugu, hots, zientziarekin eta teknologiarekin harremana dutenak (Sáinz, 2014).

Jarrantuz, Sáinzek (2012) aurrera eramandako hainbat ikerketetan demostratu zen irakaslegoak itxaropen ezberdinak esleitzen dizkiela neska eta mutilei eta ondorioz, neskak hainbat arlotan mutilak baino hobekak eta alderantziz direla defendatzen dute. Sinesmen horiek direla medio, irakasleek euren jarrera moldatu eta ondorioz, ikasgaiak modu ezberdinean tratatu, mezu sexistak transmititu eta euren ikasleei desitxuratutako aholkuak eskaintzen dizkiete, neskentzat edo mutilentzat hobekak diren ikasketen ingurukoak, alegia. Hitz gutxitan, irakasleek neska eta mutilei atxikitutako itxaropen akademiko ezberdinek genero rola indartzen dituzte (Sáinz, 2014).

Eskola esparruaz gainera, **etxean** ere aipatu berri diren genero rola errepikatzen dira. Hortaz, gurasoek hainbat lanbideekiko dituzten aurreiritziak, seme-alabekin izandako interakzioen bitartez transmititzen dizkiete, esaterako, iritzi edota epaiketen bidez (Sáinz, 2012). Ondorioz, neska-mutilek etorkizuneko lanbideen inguruko estereotipoak eraiki eta euren erabakiak nabarmenki mugatzen dituzte. Hori dela eta, emakumeek lanbide batzuk jorrazteko gaitasun batzuk dituzten bitartean, gizonek beste batzuetan aritzeko beste kualitate batzuk dituztela uste dute (Hidalgo, 2017).

Horrekin jarraituz, Rosalesek (2017) dioten moduan, gizarteak ondo ikusten ditu hainbat jarrera eta beste batzuk ordea, epaitu. Esate baterako, neskek euren ama etxeko lanekin laguntzen duten bitartean, mutilek, aita bere eginkizunekin laguntzea. Hori dela eta, umek normaltzat hartzen dute amek etxetik kanpo lan egin eta gero, etxeko lanetaz arduratzea. Alabaina, aiten kasuan ez dute hain ondo baloratzen. Jarraituz, pertsonen zaintza ere genero femeninoaren kontua dela uste dute, izan ere, haurrentzat, gaixoekin dagoen figura beti ama izango da eta gutxitan, ardura hori aitari naturaltasunez esleituko diote.

Horren harira, txikitatik neskek barneratzen dute arrakasta edertasun eta sinpatiarekin erabat loturik dagoela eta ez, ordea, gaitasun intelektual eta espiritu ekintzailearekin. Horrexegatik, orokorrean, neskek zerbitzu eta pertsonen zaintzarekin erlazionaturiko lanbideak aukeratzeko joera erakusten dute. Aldiz, mutilek euren etorkizunean indartsuak, protagonistak eta azkarrak izan beharko direlakoan daude eta horregatik, nahiz eta emaitza akademiko bikainak ez izan, zientziarekin edota teknologiarekin loturiko ikasketak aukeratzeko dituzte, betiere, gizarteak euren buruaz espero duena betetze aldera (Hidalgo, 2017).

Hona hemen, egungo gizarteak genero bakoitzari esleitzen dizkion estereotiporik ohikoenak laburbiltzen dituen taula (Freidenberg, 2018):

♀	♂
Adeitsua	Asertiboa
Menpekoa	Menderatzailea
Ezjakina	Liderra
Autonomia gutxikoa	Independentea
Ahula	Intelektuala
Altruista	Fidakorra
Ulerkorra	Kementsua
Txeratsua	Ausarta
Zaintzailea	Lehiakorra
Errukitsua	Leiala
Langilea	Bihurria
Arduratsua	Despistatua
Konformismoa	Dirdira akademikoa

Taula 1. Emakume eta gizonei atxikitutako estereotipo nagusienak.

Gauzak horrela, guraso zein irakasleek, mutilaz, neskaz baino gehiago espero dutenean, azken horren itzaropen akademiko zein profesionalean eragin negatibo nabarmenak suerta daitezke. Era berean, ikerketa askok demostratu duten moduan, haurren abilezia eta arrakasta akademikoaren inguruan helduok ditugun itzaropenek, umeen berezko abilezia eta ondorengo etekina eraikitzen amaitzen dute (Bleeker eta Jacobs, 2004).

Aipatu berri den fenomenoari “pigmalion efektua” deritzo eta nagusitasun handia hartzen du hezkuntza esparruan, izan ere, irakasleek euren ikasleei buruzko aurreiritziak osatzeko joera izan ohi dute. Tamalez, epaiketa horiek, usu, ikasleen arrakasta akademikoan negatiboki eragiten dute, hortaz, ikasleek itzaropen horiek identifikatzeko

erraztasun handia dute eta horien arabera jokatzeko hasten dira (Sánchez eta Fernández, 2005).

Solís, González, Física, Asturiana eta de Llinguak (2017) dioten moduan, pigmalion efektuak, “betetako iragarpena” izena duen prozesuari jarraitzen dio. Hortaz, irakasle batek ikasle bati buruzko iragarpen bat osatzen duenean hasten da, esaterako, errendimendu baxukoa dela. Gauzak horrela, irakaslearen espektatibak murrizten dira, izan ere, irakasgaia gaitzetzeko kapaza ez dela uste du, beraz, arreta gutxiago eskaini eta ikasleak motibazioa zeharo galtzea eragiten du. Ondorioz, ikasleak ez du ahalegin handirik egiten eta ez du ikasgaia gaitzitzen, beraz, irakaslearen iragarpena osotasunean betetzen da.

Argi dago, bada, gure jokoak eta gure ikasleena guk geuk sortzen ditugun espektatibengatik erabat baldintzatuta dagoela. Halaber, autoestimua akademikoa, ikasleek euren buruari buruz egiten duten balorazioaren arabera da eta hori ingurune akademikoari estuki lotuta dago (Solís, González, Física, Asturiana eta de Llinguak, 2017).

Hitz gutxitan, Hidak (2017) azpimarratzen du ikasleek euren etorkizuneko okupazioaren hautaketan barne- zein kanpo-faktoreek eragin zuzena dutela. Barne-faktoreak direla eta, gaitasunak, interesak eta motibazioak izendatuko genituzke; aldiz, kanpo-faktoreen barnean, testuinguru sozial eta familiarra, testuinguru kultural eta ekonomikoa eta zehazki, generoa. Beraz, azken horri estuki lotuta dauden konstrukzio sozialek gazteen etorkizunerako proiektio pertsonal eta profesionalean berebiziko garrantzia dutela jakinda (Rosales, 2017), goazen ba hauen trataera eta horren eragina aztertzea.

4. IKERKETAREN HELBURUAK

Hurrengo orrialdeetan garatuko den ikerketak bi helburu nagusi izango ditu; lehenengoa, **Haur eta Lehen Hezkuntzako hurrek gizartearen arabera “femeninoak” eta “maskulinoak” diren lanbideen sailkatze horrekin bat datozen edo ez egiaztatzea** izango da. Bestalde, bigarren helburuak helduon figura izango du abiapuntu, izan ere, **haurren heziketa akademiko eta proiektio profesionalean guraso zein irakasleek dituzten generoari buruzko estereotipoak aztertzea** baita.

5. METODOA

Lan honetako ikerketa bi zati nagusitan banatuta dago. Alde batetik, lan honen lehenengo helburuari erreferentzia egiten diona, hots, haurrekin egindako lana eta bestetik, bigarren helburua dela eta, irakasle eta gurasoekin egindako galdetegiak.

5.1. HAURREKIN BURUTUTAKO LANAREN NONDIK NORAKOAK

5.1.1. Parte-hartzaileak

Ikerketan parte hartu duten umeak 3-12 urte bitarteko 44 neska zein 39 mutil izan dira. Zehazki, 3 urteko haur bat, 4 urteko 2, 5 urteko 18, 6 urteko 8, 7 urteko 4, 8 urteko 8, 9 urteko 6, 10 urteko 1, 11 urteko 17 eta 12 urteko 18 umeek burutu dute esperimendua. Beraz, guztira, 83 izan dira.

5.1.2. Instrumentua eta prozedura

Haurrek, hainbat lanbideren inguruan dituzten aurreiritziak identifikatze aldera, hauetan oso adierazgarriak diren elementu ezberdinen irudiak biltzen dituzten txartelak erabili dira (Ikus 41-50. Orrialdeetako 1. Eranskina). Horren helburua, umeek lanbide bakoitza neskei edo mutilei esleitzen dioten identifikatzea izan da.

Proba hura, adin tartearen arabera antolatutako 5-10 hurrez osatutako talde txikietan aurrera eraman da eta gutxi gorabehera 15 minututako iraupena izan du.

3 urteko haur eta 4-8 urte bitarteko taldeekin ondorengo prozedurari eutsi zaio:

- Lehenik eta behin ezagutzen dituzten **lanbideen inguruan hitz egin** da, gaian apur bat murgiltzeko asmoz.
- Ondoren, nagusiak direnean izan nahi duten **lanbidearen inguruko marrazkia** egiteko eskatu zaie.
- Gero, sozialki generoaren arabera gehien estereotipatuta dauden hamar lanbide gauzatzeko beharrezkoak diren elementuen irudiak erakutsi zaizkie. Horiei esker, **lanbidea** zein den **asmatu** eta hori **“emakumeek” edo “gizonek” egiten duten adierazi** dute marrazki baten bitartez. Ondorengo lanbideak erabili dira (Rosselló, 2014):

Suhiltzailea

Medikua

Pilotua

Futbolaria

Mekanikoa

Erizaina

Dantzaria

Etxeko andrea/Etxeko gizona

Irakaslea

Saltzailea

Umeen erritmoa errespetatuz eta proba astunegia suertatu ez zedin, gutxi gora behera haur bakoitzak lau marrazki egin ditu. Alabaina, beste haur batzuk lau baino marrazki gehiago egiteko pazientzia eta gogoak izan dute.

Bestalde, 9-12 urte bitarteko hurrekin, euren ulermen-maila altuagoa dela aprobetxatuz, dinamika apur bat eraldatu da. Izan ere, haur txikiagoek egindakoaz gainera, **marraztutako pertsona bakoitzari izen bat jartzeko** eskatu zaie, horrek, lanbide bakoitza femeninotzat edota maskulinotzat hartzen duten era objektiboan identifikatzea ahalbidetu du.

5.1.3. Emaizak

Emaizak analizatzeko, ondorengo orrialdeetan ikus daitekeen taula sortu da. Bertan, marrazki bakoitza egin duen umearen adina, generoa, nagusitan izan nahi duena eta burututako marrazki bakoitzaren generoa ikus daiteke. Hainbat marrazkiren adibideak, lan honen amaieran, zehazki, 51. orrialdetik aurrera agertzen den 2. eranskinean eskuragarri daude. Ildo horretatik, marrazkiak oso subjektiboak direnez, umeei egin dituzten langileen generoa adosteko, “adituen iritzia” eskatu da. Horretarako, Haur eta Lehen Hezkuntzako bost irakasleen (hiru emakume eta bi gizon) iritzia jaso da. Horiek, 1.go marrazkitik 43.era banan-banan adierazi dute irudi bakoitzean neska (N), mutila (M), biak edo ez bata ez bestea ikusten zuten. Ondoren, iritzien batz bestekoa egin da eta horren arabera taula bete.

Hala eta guztiz ere, zenbait marrazkietan ezinezkoa izan da sexu bat edo bestea esleitzea, beraz, kasu horietan “-“ sinbologia agertuko zaigu. Era berean, hurrek euren etorkizuneko lanbidea irudikatzeko zailtasunak izan badituzte ere, adierazi berri den ikurra islatuko da.

Beste aldetik, 44. marrazkitik aurrera, hurrek pertsonari izena jarri diotenez, errazagoa izan da irudietan generoa identifikatzea.

Taula horren ostean, beste taula txikiagoa bat egongo da eta bertan, lanbide bakoitza burutzen zenbat neska eta zenbat mutil marraztu dituzten agertuko da.

Marraskia	Adina	Generoa	Nagusia denean	Lanbideak										
				Suhiltzailea	Medikua	Pilotua	Futbolaria	Mekanikoa	Erizaina	Dantzaria	Etxeko andrea/gizona	Irakaslea	Saltzailea	
1 (2.1. Erans)	3	N	-	-	N								M	
2	4	N	Ile apaintzailea	M				-	N	M			N	
3	4	M	-		M		M	-						N
4	5	M	-	M					N				N	
5 (2.2. Erans)	5	M	Futbolaria				-	-	-					-
6	5	M	-				-	-	-					-
7	5	N	-				-	-	-					M
8 (2.3. Erans)	5	M	-				-	-	N					-
9	5	N	Medikua				M	N	N					N
10 (2.4. Erans)	5	M	Irakaslea	M	M	-		M		N			-	
11	5	N	-	M	N									
12	5	M	-	M	-	BIAK		-	-	N			-	
13	5	M	Astronauta	-	-						-		-	
14 (2.5. Erans)	5	N	Polizia	N	N					N			N	
15	5	M	Pirata	-	M						-		M	
16 (2.6. Erans)	5	N	-	M	M					N			N	
17	5	M	Astronauta		M						-		-	
18	5	N	Astronauta	-	-								N	

Taula 2. 1etik 18ra arte haurrek egindako irudien analisia.

Marraskia	Adina	Generoa	Nagusia denean	Lanbideak									
				Suhiltzailea	Medikua	Pilotua	Futbolaria	Mekanikoa	Erizaina	Dantzaria	Etxeko andrea/gizona	Irakaslea	Saltzailea
19	5	N	-	-	-								
20 (2.7. Erans)	5	N	-	M	M					N		N	
21	6	M	-	N	M					N		N	
22 (2.8. Erans)	6	M	-	M	M	M					N	M	
23	6	N	Polizia									N	
24 (2.9. Erans)	6	N	Mekanikoa	M	N	N		N	N	N		N	
25	6	M	-				-	-	-				-
26	6	M	-				-	-	-				-
27	6	N	-	M	M					N		N	
28	6	N	Zientifikoa	-	-	M		N	-			N	
29	6	N	Medikua	N	N				N	N		N	
30	7	M	-				-	-	-				-
31	7	M	-				-	-	-				-
32	7	M	-				M	-	-				-
33 (2.10. Erans)	7	N	Irakaslea			N	M		N			N	
34 (2.11. Erans)	8	N	Arkeologoa	M	M	M		M	N	N		N	
35 (2.12. Erans)	8	N	Medikua	M	M	M		M	M	N		M	
36 (2.13. Erans)	8	N	Zientifikoa	N	M	M			N	N		N	

Taula 3. 19tik 36ra arte haurrek egindako irudien analisia.

Marraskia	Adina	Generoa	Nagusia denean	Lanbideak									
				Suhiltzailea	Medikua	Pilotua	Futbolaria	Mekanikoa	Erizaina	Dantzaria	Etxeko andrea/gizona	Irakaslea	Saltzailea
37	8	N	Futbolaria				M	-	M				-
38	8	M	-				-	-	-				-
39	8	N	-				-	-	-				-
40 (2.14.Erans)	8	N	Irakaslea	M	N	M		M		N		N	
41 (2.15.Erans)	8	M	-	M	M	M					M	M	
42 (2.16.Erans)	9	N	-	N	N	N					M	N	
43	9	N	Albaitaria	N	N							N	
44	9	M	Suhiltzailea	M			M				N	N	
45	9	M	Futbolaria	M			M				N	N	
46	9	M	Artzaina	M			M				N	N	
47 (2.17.Erans)	9	N	Albaitaria				M	M	M				M
48	10	M	Futbolaria	N	M		N					N	
49 (2.18.Erans)	11	N	Albaitaria	M			N				N	N	
50	11	M	Futbolaria	M			M				M	N	
51	11	N	-	M			N				M	N	
52	11	N	Irakaslea	M			M				M	N	
53	11	N	Irakaslea	M			N				M	N	
54	11	N	Sukaldaria	M			M				N	N	

Taula 4. 37tik 54ra arte haurrek egindako irudien analisia.

Marrazkia	Adina	Generoa	Nagusia denean	Lanbideak									
				Suhiltzailea	Medikua	Pilotua	Futbolaria	Mekanikoa	Erizaina	Dantzaria	Etxeko andrea/gizona	Irakaslea	Saltzailea
55	11	N	Abeslaria	M			M				N	N	
56	11	M	-	N			N				M	M	
57	11	N	Ingeniaria	M			N				N	N	
58	11	N	Irakaslea	N			M				N	M	
59 (2.19.Erans)	11	N	Albaitaria	M			M				N	N	
60	11	M	Modeloa		M	M			N				M
61	11	N	Irakaslea eta medikua		M	N			N				N
62	11	N	Abeslaria		M	M			N				M
63	11	M	Sukaldaria		N	M			N				M
64 (2.20.Erans)	11	N	Borrokalaria		N	M			N				N
65	11	N	Diseinugile grafikoa		M	M			N				N
66 (2.21.Erans)	12	M	Futbolaria	M			M				M	N	
67	12	M	Irakaslea	N			N				M	M	
68 (2.22.Erans)	12	M	Astronauta	N			N				M	M	
69	12	M	F1-eko pilotua		N	M			M				M
70	12	M	Margolaria		M	M			N				N
71	12	M	-		M	M			M				M

Taula 5. 55etik 71ra arte hurrek egindako irudien analisia.

Marrazkia	Adina	Generoa	Nagusia denean	Lanbideak										
				Suhiltzailea	Medikua	Pilotua	Futbolaria	Mekanikoa	Erizaina	Dantzaria	Etxeko andrea/gizona	Irakaslea	Saltzailea	
72 (2.23.Erans)	12	N	Politikaria		M	N				N				N
73	12	N	Aktoea		M	N				M				N
74	12	M	Robotika ingeniaria		M	M				M				M
75	12	M	Futbolaria		M	M				N				M
76	12	N	-		M	M				M				M
77	12	M	Futbolaria		M	M				M				M
78	12	N	Irakaslea		M	M				N				M
79 (2.24.Erans)	12	N	Erizaina		N	N				N				N
80	12	M	Borrokalaria		M	M				N				M
81	12	M	Boxealaria		M	M				N				M
82	12	N	Gozogilea		M	N				N				N
83	12	M	Futbolaria		N	M				M				N

Taula 6. 72etik 83ra arte haurrek egindako irudien analisia.

Suhiltzailea		Medikua		Pilotua		Futbolaria		Mekanikoa		Erizaina		Dantzaria		Etxeko andrea/gizona		Irakaslea		Saltzailea	
♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂
11	27	13	30	9	19	8	12	3	5	23	10	13	1	10	10	32	9	11	14

Taula 7. Lanbide bakoitzeko neska eta mutil kopuru totala.

5.2. HELDUEKIN BURUTUTAKO LANAREN NONDIK NORAKOAK

Haurrek, lanbideei esleitzen dizkioten estereotipoen jatorria identifikatzeko, hauen lehendabiziko bi sozializazio esparruak aztertuko dira, familia eta eskola, alegia.

5.2.1. Gurasoak

5.2.1.1. Parte-hartzaileak

Ikerketan, 0-12 urte bitarteko seme-alabak dituzten 114 gurasok parte hartu dute, horietatik, 102 emakumeak izan dira eta beste 12ak gizonak, euren adin-tartea 21-52 urtekoa izan delarik.

5.2.1.2. Instrumentua eta prozedura


Gurasoek lanbideen inguruan generoari lotutako estereotipoak dituzten ala ez identifikatze aldera, 13 galderaz osatutako galdetegi bat erabili da. Guraso guztien erosotasunerako, galdetegi hura euskaraz zein gaztelaniaz eskaini da, bakoitzak erosoago sentitzen den hizkuntzan erantzun ahal izateko (Ikus 71-75. orrialdeetako 3.2. eta 3.3. eranskinak).

Inkesta osatzen duten 13 galdera horietatik, batzuk adostasuna zein desadostasuna adierazteko baieztapenak dira eta gainontzekoak, bestelako galdera itxi zein irekiak. Era berean, erantzun guztiak erabat anonimoak izan dira.


5.2.1.3. Emaitzak

Inkesta guztien analisia egin ostean, hauek dira lortutako emaitzak:



- Seme-alaben generoak euren lanbidea aukeratzean eragina izango duen ala ez galdetzean, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, emaitzak nahiko kontrajarriak izan dira:




- Alabaina, inkesta bete duen gurasoen %80ak uste du oraindik ere genero bati edo besteari esleitzen zaion lanbideak existitzen direla. Hona hemen grafikoa:



- Aurrekoari eutsiz, hori gertatzearen zergatia galdetzean, gurasoek ondorengo arrazoiak azpimarratu dituzte: gizarte eredu patriarkala eta matxista izatea, lan-sektorean oraindik emakume eta gizonen arteko berdintasuna ez existitzea, gizartearen inertzia jarraitzea, kulturalki lanbide batzuetan emakumearen irudia hobea eta alderantziz izatea eta bi sexuen arteko ezberdintasun fisikoak egotea.
- Euren seme-alabak nagusiak direnean aukeratzea nahiko zuten lanbidearen inguruan galdetzean, erantzunak parekoak izan dira, hots, gehiengoak “haiek nahi dutena” erantzun du, generoen arteko bereizketarik egin gabe eta gurasoek, eurek, burutzen duten ogibideak inongo eraginik izan gabe.
- Horren haritik, lanbide zehatzen inguruan galdetzean, generoari lotutako bereizketa bat baino, lanbidearen araberako segregazio bat nabarmendu da. Esate baterako, gurasoen gehiengoak 5 batekin adierazi du euren seme-alabek medikua lanbide aukeratzea eta, berriz, 2-3 batekin etxeko andrea/gizona edo saltzailea, betiere, 0 baliorik txikiena eta 5 altuena izanik.
- Hala eta guztiz ere, generoa oinarritzat hartuz, hainbat lanbideren egokitasunari buruz galdetzean, bereizketa batzuk bai azpimarratu daitezke, izan ere, ondorengo grafikoetan agertzen diren bi kasuak nabarmenenak izan dira:



- Ikasketak direla medio, nabarmena da ere, gurasoen ustez, orohar, zenbait ikasketetan zailtasun gehiago izango dituztenen portzentajea.



5.2.2. Irakasleak

5.2.2.1. Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan, 0-12 urte bitarteko ikasleekin, hots, Haur eta Lehen Hezkuntzakoekin, lan egiten duten 111 irakaslek parte hartu dute. Parte-hartzaile horien adina, 23-62 urte bitartekoa izan da, orobat, hezkuntza etapari dagokionez, %45 Haur Hezkuntzan aritzen da eta %64, berriz, Lehen Hezkuntzan. Azkenik, sexua dela eta, 78 emakume, 31 gizon eta ez-binario batek osatu dute lan hau.


5.2.2.2. Instrumentua eta prozedura

Haur eta Lehen Hezkuntzan, eskoletan, lantzen ari garen gaiaren inguruko estereotipoak zein neurritan agertzen diren identifikatzeko, 13 galderaz osaturiko inkesta bat erabili da (Ikus 67-71. orrialdeetako 3.1. eranskina). Galdetegia osatzen duten galdera horietatik, batzuk adostasuna zein desadostasuna adierazteko baieztapenak dira eta gainontzekoak, bestelako galdera itxi zein irekiak. Era berean, erantzun guztiak erabat anonimoak izan dira.

5.2.2.3. Emaitzak


Galdera sortak analizatu ostean, ondorengo emaitzak lortu dira:

- Hainbat baieztapenekin adostasuna irudikatzean, inkesta bete duen gehiengoak bi generoen arteko desberdintasunik ia ez dela agertzen adierazi du. Haatik, nabarmena izan da, 33 pertsonak “ados” markatu dutela “mutilek, neskek baino jarrera lehiakorrak erakusteko joera handiagoa dute” esaldian eta 13k “neskek, mutilekin alderatuta, intuizioa arrazoinamendua baino gehiago erabiltzen dute” afirmazioan.
- Hamar lanbideren artean, neskentzat, mutilentzat edo berdina bientzat aproposagoak direnak aukeratu behar izan dutenean, “bientzat” aukera nabarmendu da kasu guztietan. Aitzitik, desberdintasun gutxi batzuk ageri izan dira batez ere suhiltzailearen kasuan. Hona hemen datuak biltzen dituen grafikoa:




- Gelako testuinguruko errealitatea dela eta, 45 irakasleek adierazi dute testuliburuetan agertzen diren nesken eta mutilen irudien kantitatea gutxitan izan ohi dela parekoa, halaber, klasean aipatzen diren emakume eta gizon famatuen kopurua ez dagoela orekatuta azpimarratzen dute.
- Klaseko interakzioei buruz galdetzean, gehiengoak dio neskek eta mutilek berdin parte-hartzen dutela jardueretan, hala ere, gatazkak direla medio, nahiz eta orokorrean, biek gatazka kopuru berdinen eragileak izan, hainbat irakaslek diote mutilek askotan, neskek baino gatazka gehiago sortzen dituztela.


- Seigarren galderan, irakasgai zehatz batzuetan, orohar, nortzuk diren trebeagoak galdetu zaie eta hauek dira atera diren emaitzak:




- Beste zenbait baieztapenekin adostasuna islatzean, irakasleen erdia baino gehiagok adierazi du neskek eta mutilek osatzen dituzten talde mistoak eraginkorrenak direla klaseko jarduerak burutzean. Hala eta guztiz ere, bi sexuen araberako bereizketa analizatzeko, irakasleen aburuz, neskek bakarrik osatzen dituzten taldeak, mutilez bakarrik osaturik daudenak baino eraginkorragoak dira.
- Aurrekoaren harira, ikerketek adierazi duten moduan, dirudenez, mutilak, neskekin alderatuta, zaratatsuagoak dira eta horren ondorioz, irakasleak, usu, arreta handiagoa eskaini behar die.
- Hurrengo galderan, kasu hau planteatu da: “Ondorengo jarrera hauetatik zeintzuk esperoko zenituzke 6.mailako neska batengandik?” eta hauek izan dira irakasleek markatu dituzten erantzunak:



- Bestalde, mutila izango balitz, berarengandik esperoko zituzten jarrerak aukeratzeko eskatu zaie eta hauek izan dira markatutako aukerak:



- Arrakasta akademikoaren inguruan, parte-hartzaileek diote askotan entzun dutela mutilen arrakasta akademikoa gaitasun intelektualarekin lotuta dagoen bitartean, neskena, esfortzuari atxikitzen zaiola. Horrekin batera, irakasleen gehiengoak askotan ondorengo baieztapena entzun du: neskek tradizionalki ikasketa “femeninoak” direnak aukeratzeko joera dute eta mutilek, gizarteak “maskulinoak” kontsideratzen dituenak. Ildo beretik, maiz entzun izan da neskek zaintzarako aurretiko joera duten bitartean, mutilak lider naturalak direla.
- Gauzak horrela, irakaslegoaren erdiak baino gehiagok askotan entzun izan du badirela ikasgaiak non sexu batekoak, besteak baino hobekak diren.
- Oraindik ere genero bati edo besteari esleitzen zaion lanbideak existitzen diren ala ez galdetzean, grafikoan ikus daitekeen moduan, erantzunetan adostasun portzentaje handia egon da:



- Aurreko galderaren erantzunen artean, hurrengoak nabarmendu dira: betidanik genero rola existitu dira eta oraindik ere gizartea oso errotuta dago; egun ere lanbide batzuk oso estigmatizatuak daude, batez ere zaintza edo esfortzu fisikoarekin zerikusia dutenak; emakumeei zaintzara eta heziketara bideratzen dituzte txikitatik "naturala" den joera bat bezala salduz

baina, guztiz bideratuta dagoen ekintza bat da, "gure lanbidearen aukeraketa", hain zuzen ere; sistema kapitalista eta patriarkalak hezkuntza kontrolatzen duen unetik, genero bereizketaren baitan oinarritzen du hezkuntza sistema eta modu horretan sistemak bere baitan irauten duela bermatzen du; gizarte heteropatriarkal batean bizi gara eta gizonak eta emakumeak ez gaude oraindik parekatuak alor eta espazio askotan, izan ere, matxismo aztarna nabarmenak dira; neska edo mutil kopuru handia dago ogibide zehatz batzuetan eta umeez hori hartzen dute erreferente gisa eta genero ikuspegia ez dago batere landuta.

6. KONKLUSIOAK

Atal honen bitartez, lanean zehar plazaratutako galderei erantzun posible batzuk ematea dugu helburu. Hortaz, hurrengo paragrafoetan lan honen oinarri teorikoa ikerketan lortutako emaitzekin alderatuko dugu gure ondorio propioak ateratzeko.

Gorago adierazi bezala, ikerketak bi xede nagusi izan ditu. Batetik, haurrek, egun oso estigmatizatuak dauden ogibideen inguruko estereotipoak dituzten ala ez analizatzea eta bestetik, guraso zein irakasleek haurren heziketa akademiko eta etorkizuneko lanbideen inguruan dituzten generoari buruzko estereotipoak aztertzea. Analisiaren estrukturari eutsiz, lehenik eta behin haurren marrazkien bitartez eratorritako informazioaren inguruko gogoeta egingo dugu, ondoren, helduen inkestetan ateratako daturik aipagarrienak komentatu eta amaitzeko, bi horiek uztartuko ditugu nolabaiteko loturak eratze aldera.

Arestian esan bezala, Rossellók (2014) egun, "femeninoak" eta "maskulinoak" diren hamar lanbideak aintzat hartu dira. 25. orrialdeko taulan ikus daitekeen moduan, geure hipotesiak zati handi batean bete dira. Izan ere, 10 lanbide horiei erreferentzia egiten dioten marrazkiak aztertzean, 8 ogibideetan aurreikusten zena bete da, femininotzat hartutako lanbideetan neska gehiago marraztea eta maskulinotzat hartutakoetan gizon gehiago agertzea, hain zuzen ere. Aldiz, "etxeko andrea/gizona" eta "saltzaile"-aren kasuan jasotako datuak ez dira gure hipotesiarekin bat etorri. Izan ere, lehenengo lanbide horretarako emakume eta gizon kopuru berdina marraztu den bitartean, bigarrenetan gizon kopurua gailendu da.

Datu kuantitatibo horiek oinarri hartuz eta marrazkiz marrazki azterketa eginez, generoaren aldetik zenbait lanbide beste batzuk baino errotuagoak daudela ondoriozta daiteke, medikua, pilotua, erizaina, dantzaria eta irakaslea, besteak beste. Horien

artean, “dantzaria” izan da “femeninotzat” gehien hartu den lanbidea, izan ere, 14 marrazkitik, soilik batean ikusi ahal izan da mutil bat.

Haurren adinari erreparatuz, ezin da oso ondorio zehatzik deskribatu, hortaz, adin-tarte bakoitzaren barnean, emaitzak oso ezberdinak izan dira. Aitzitik, hainbat ekarpen egin nahiko nituzke honen inguruan. 11-12 urte bitarteko haur talde batekin esperimentua aurrera eramatean, ondorengo komentario entzun nuen: *“Badakit hau zer den, orain eskatuko digu marrazteko suhiltzaile bat mutila, neska bat etxeko-andrea...”*. Beraz, adin-tarte horretako haurrek genero ikuspegia lantzen ari direla ohartu nintzen, dirudienez, eskolan dinamika honen antzeko beste bat jorratu zuten lehenago. Ondorioz, egun horretan marrazkiak egin zituztenen artean askotariko emaitzak topa daitezke, zehazki, futbolari, etxeko andrea/gizona eta saltzailearen kasuetan.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta genero ikuspegia nolabait lantzen hasi, adin horretako haur askok jarraitu dute gure hipotesia indartzen, esaterako, medikua gizonari eta erizaina neskari esleituz.

Jarraituz, “irakaslea”-ren kasuan, aldez aurretik aurreikusten zen haur txikienek “neskak” marraztuko zituztela, izan ere, Haur Hezkuntzako etapan nagusia da emakumearen presentzia. Hori dela eta, txikienek irakaslearen irudia emakumezkoarekin lotu dute eta nagusiagoak izan diren heinean, apur bat aldatu dute ikuspegi hori eta neskak zein mutilak irudikatu dituzte, betiere emakumearen irudia nagusi izan delarik.

Marrazkiak egin dituzten haurren generoan ikuspuntua jarriz gero, esan daiteke, mutilek, orohar, neskak baino mutil gehiago marrazteko joera izan dutela. Aldiz, neskek, mutilak zein neskak marraztu dituzte kopuru berdinean.

Nagusiak direnean desiratzen duten lanbidearen inguruan galdetzean, generoaren inguruko ñabardura bat bai identifika daiteke. Izan ere, adin guztietako neskei galdetzean, emaitza anitzak eskuratu dira, esate baterako, irakaslea, medikua, albaitaria, zientifikoa, ile-apaintzailea, politikaria, abeslaria, polizia... Bestalde, mutilen kasuan, emaitzak askoz ere errepikakorrek eta urriak izan dira, adibidez, futbolaria, astronauta, suhiltzailea, borrokalaria... Beraz, mutilek, neskekin alderatuz gero, “maskulinoak” diren lanbideak barneratuagoak dituztela ondoriozta daiteke. Neskek, berriz, mota guztietako lanbideekin amesten dute.

Haurrekin egindako ikerketaren zatiari amaiera eman aurretik, xehetasun bat azpimarratu nahiko nuke, izan ere, 43. marrazkira arte, pertsonaiei izenak ez zizkiotenez jartzen, helduon lana izan da “neskak” edo “mutilak” identifikatzea. Horretarako, “aditu”-

ekin elkartu eta horien usteak bildu nituen marrazki bakoitzari sexu bat edo beste esleitzeko. Ondoren, 5 pertsona horiei galdetu nien ea zertan oinarritu ziren neskak edo mutilak aukeratzeko eta ondorengoak esan zidaten zizkidaten: erabilitako koloreak; janzkera, zehazki, gonak edo prakak eta ilea, hots, luzea, mototsak zein ile motza.

Iritzi horiek behin bilduta eta nire begiradari arreta jarritz, ondorengo ondorioztatu nuen: helduok estereotipo sutsuak ditugu “maskulinitate” eta “feminitate” kontzeptuen inguruan. Hortaz, zergatik mutil batek ezin du gona bat jantzi edo neska batek ile motza izan? Halaber, hurrengo puntuan, hau da, hobekuntzarako proposamenetan, sortutako arrakala horri konponbidea emateko hainbat ideia luzatuko ditut.

Jarraituz, helduekin, hau da, irakasle eta gurasoekin aurrera eramandako galdetegietatik ateratako datuetan oinarrituz hainbat konklusio nagusi plazaratuko dira hurrengo lerroetan.

Lehenik eta behin, GrAL honen motorra izan den galdera bultzatzailearen erantzunetan irakasle zein gurasoen aldetik adostasuna egon dela azpimarratu nahiko nuke, izan ere, aurreikusten zen moduan eta lana jorratzean indartu den bezala, oraindik ere genero bati edo besteari esleitzen zaion lanbideak existitzen dira. Arrazoi gisa, generoen arteko berdintasun eza, betiko ohituren inertzia eta zenbait lanbidetan neska edo mutil kopuru desorekatua egotea atxikitzen dute.

Portzentajeetan arreta jarritz, esan beharra dago, inkestak bete dituztenen gehiengoek genero berdintasunaren alde egin dutela, hau da, “biek” erantzuna aukeratu dute galdera gehienetan. Haatik, galdera guztietan desberdintasun kutsu txiki bat sumatu daiteke, geure hipotesiak baieztatzeke baliagarria izan zaiguna, hain zuzen ere.

Irakasgaiak direla medio, guraso eta irakasleen inkestak konparatu ostean, nahiz eta gehiengoak ezberdintasunik ez somatu, ondoriozta daiteke hainbat ikasgaien arteko banaketa zurruna pairatzen dela oraindik. Hori dela eta, heziketa fisikoan, matematikan eta teknologian mutilak gailentzen diren bitartean, neskak musikan, hizkuntzetan eta plastikan trebeagoak direla uste dute. Zientzietan, ordea, denetariko erantzunak egon dira. Hori dela eta, neskek mutilek baino hobeak eta mutilek neskek baino hobeak diren ikasgaiak existitzen direlakoaren ideia dirauela azpimarratu daiteke.

Izan ere, generoaren araberako banaketa dela eta, irakasleen inkestetan ikusi den moduan, neska eta mutilengandik ez ditugu jarrera berdinak espero. Beraz, marko teorikoan azaldu den moduan, neskengandik arreta, txukuntasuna eta heldutasuna espero bitartean, mutilen nahasteak zein alferkeria onartzen dugu era naturalean.

Idea horren haritik, hurrek etorkizunean aukeratuko duten lanbidea nolabait baldintzatzen ari garela esan genezake. Izan ere, betiko estereotipo zein rolak indartzen gabiltza txikitatik jada neskengan eta mutilengan itxaropen ezberdinak jartzen baditugu. Beraz, ikasgaien inguruko galderari estuki lotuta, lanbideen egokitasunari buruzko galderaren erantzunetatik ere hainbat konklusio atera daitezke. Esaterako, gaitasun tekniko eta fisikoekin harremana duten lanbideak oraindik ere mutilekin harremantzen ditugula eta zaintza edo artearekin zerikusia dutenak, ordea, neskekin.

Behin haurren marrazkiak helduen emaitzekin konparatzean, ondorengoa ondoriozta dezakegu: nahiz eta kopuru txikian izan, oraindik ere helduok arlo akademiko zein profesionalaren inguruko genero-estereotipoak barneratuta ditugu eta txiki txikiak direnetik ere, hurrei jada transmititzen dizkiegu. Tamalez, horrek genero bakoitzarekiko itxaropen ezberdinak izateak eragiten du eta gorago azaldu den moduan, “pigmalion efektua” deritzonaren bitartez, betiko rol eta estereotipoetan murgiltzera bideratzen ditugu gure seme-alaba nahiz ikasleak.

Hala eta guztiz ere, datuetan ikusi ahal izan den moduan, gaur egun kontzientzia handia dago genero ikuspegiaren inguruan. Hortaz, ikerketan parte hartu duen %75ak gutxienez bi generoen arteko berdintasunaren alde agertu da.

Argi dago, bada, gai honen inguruan lan handia dagoela egiteke, izan ere, urteak pasa ahala, gizartean oraindik genero-estereotipo sendoak dihardute. Dena den, aurrera goaz. Izan ere, ama, aita, andereño zein maisu garenetik, haurren bizitza osorako arrastoa utziko duten erreferenteak bihurtzen gara. Beraz, apurtu dezagun betiko genero moldeekin eta eskaini diezaiegun gure hurrei ahalik eta etorkizun moreena, non ikasketak eta etorkizuneko lanbidea askatasun osoz hautatzeko askeak izan daitezen.

7. HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENAK

Lan honetan zehar, esparru akademiko zein profesionalean genero-estereotipoak existitzen jarraitzen duten ala ez aztertu eta hauen transmisioa hurrei zein neurritan eragiten dien frogatu da. Hala ere, badira gehiago sakontzeke geratu diren hainbat alderdi. Horregatik, atal honetan lanaren gabeziak eta hobekuntzarako hainbat proposamen aipatuko dira.

Hasteko, hurrekin burututako lana dela eta, denok jada dakigun moduan, haurren mundua beti ezusteko ugariz beterik dago. Horrekin zera adierazi nahi dut, ezin izan dela posible ikerketan parte hartu duten ume guztiekin lana jorratzeko eskema zehatz eta bakar bati eustea. Izan ere, ume bakoitza mundu bat da eta ondorioz, uneoro

bakoitzaren erritmorra moldatu behar izan da ikerketa. Hala nola, hasiera batean haur guztiei eranskinetan ikus daitezkeen hamar lanbideen irudiak erakustea pentsatu zen. Baina, lehenengo umeekin elkartu bezain fite, agerian gelditu zen hainbeste marrazki egiteko eskatzea ez zela erreal. Izan ere, haur txikienek berehala nekatu eta beste edozein gauzetara bideratzen zuten arreta. Orobat, nagusienei ere nahiko astuna egiten zitzairen lau marrazki baino gehiago egitea.

Beraz, ume talde bakoitzarekin erabilitako marrazki kopurua gutxi gorabehera laukoa izan da. Hala ere, ikerketa ahalik eta mamitsuen izate aldera, beti lanbide berdinak ez erabiltzeko, ogibide desberdinak tartekatu dira. Ondorioz, hainbat lanbideetan, beste batzuetan baino marrazki kopuru handiagoa lortu da eta horrek, analisiak guztiz zehatzak ez izatea eragin du. Hori dela eta, hasiera batean aukeratutako lanbideen artean aukeraketa zehatzago bat egitea konponbide gisa ikusten dut. Hortaz, denek beti lau lanbide berdinen irudiak egiten badituzte, emaitza gehiago lortzeaz gainera, datu zehatzagoak eskuratuko ditugu geure hipotesiak frogatu ahal izateko.

